724'gn. zenbakia
XV'gn. urtea

ARGIA

ASTEROKOA

Bidayen itunduba
(Franqueo concertado)

DONOSTIA, 1935'ko Otsailla 24 | Avenida, 32 - Ufutizkiña 12505 | Zenbakia 0,10. - Arpidea urteko 5,50

Mikel Deuna, zaintu Euskalerria

astea

Andoaingo gertakun txarrak Gipuzko guzia aldian oñazez jarri zuen, bates ere Tolosa. Lau il ziran, beste batzuk, gogor zaurituak.

Donostira setozen gizon gazte oyek, berak uste etzuten garai-abegunez erriyotzik sixitu ditu. Ez diye ezertatxo bearik eman; berialaxe ziran il-da.

Andoaingo erriya, beti betiko gogo onez, aixarri ibilli zan oyen laguntza bidez. Egiñalak egin, eziñan guziyentzat, samin-samiñez, bere lanak iritxi. Baña geruala euki izake bere bekoki erlantza, gai-maitasunak apaintzen gaituen edergailua.

Iñork ez emazu daki, nondik datozen orrelako samiñaldiyak; geyegiko abiyadaz, edo alkar-begiramenik ez duteneko, noizan, tximista bezin zirritz datozan auto aundi oyek. Ikusteko ta arterteko gauza da. Asti gutxi batera, ezbiar gaizto abek askotan gertatzen dira, ta orretxegatik, neurri ta arauak jarri biar lirake, beti arpegi-samiñez azaldu ez gaitezen.

Eleta ta eliskizuna Tolosan izan ziran asti[illegible]. Ez genuke ezer esanga betiko leloa baizik, gizaste aundiya izan zala antu eskeroz. Nai ta nayez, gieta erretan erri guziya izan biar! [illegible] gabe geldutu. Etzaye bertalakotz Tolosari gertakun zingarri orixe artuko. Uriuarre-gañeko [illegible] tyteriyo, ildakoen oroitz[illegible] jetorkiyoke!...

—o—

Joan dan astean erabillitako arlobi bat, orain ere begi-tartean daukagu. Begi onen ezaña, burupide zintzo baten argiya.

Bayonako apezpiku berriya, datozen aleguntan etxean izango dute gure alderdi artako anai maiteak. Ez diyegu abei ezer erakutsi biar, artera dala ta. Ondan, guk baño geyago dakitelako, ta oraingoz beñepin amore dagiyegu beren txanda bal-dute datorren alegun seragarri ortan!

Nauzin «konsekratua» da, il omen 11'an, ta antxe izan dira iruroge bat apaiz ta beste ogei bat elizlar, Artzai onaren «konsagrau» ikustera, emendiketik joanak.

Aldi-aurretik, eman diyote elistar bayonatarrak beren Gotzai jaunari, biyotz-biyotzeko 'maite-ezaguntza.

Begu Artzayarekin urte-urtetan zorionta!

—o—

«Euskaltzaleak» zugatz ederraren [illegible] duela, deritzagu. Euskalerriko barrutiaren erdi-erdiyan jarriya, emanta eta aruntz bere adarrak edatzen dita, izali sendo ta oparotsenen emaitzak. Ponik geundeke orrentxen itzalpean. Ez diyegu beñere ezerko zaparrik egin, eta geon etxe-barrenen daukagun baratz mirriskatxoan zugatz balitz, askoz obe geontzako.

Ezin esan, etsaizkigula arbol ortatik igali ta madariyak etorri. Orain arteño lagundu digute, ta aurrerantzian ere, oyen esku ongillezak berotuko aldigute matrailla, leun ta gozoki!

Orde galantak azaldu zaizkiyo oraingo. Billera baten ondorengo berriyak, [illegible] iritxi zaizkigu, ta [illegible] entzutez, gogo guziya zuspertu zaigu.

—0—

Bere-bere gauza bal-dada esaten digu «Euskaltzaleak» «Orixe» idazlearen neurtitz-talde edo «poema» artu ta bere eskuetan daukala irargarri. Etzayo edozeingo etxeratu!...

Gu ere «poema» orren zai geunden, biotz eta errai guzik erre-erre. Iragarri diyotenian, badizterela, etxeko puxka guzik apintdu nai genituzke, lan berri oni arrera maitetsua egiteko.

«Euskaldunak», auxe lan orren izena. Ez da izen txarra: lendik ere [illegible] buru ta kemen guztia, ta [illegible] orrj berritan [illegible] «euskaldunak» geon antzeko [illegible]!

Dana dala, zerbait ikusgarri ekarriko zaigu ta begiragarri, euskaldun [illegible], ta ez zerbait, baizik [illegible] urte txandetan, izan gaitezen.

ARGIA da zure izperringia. Irakurri zazu ta zure adixkideai ere irakurtzeko emaiozu.

ANDEREKIKOAK

Asitzea bear-bearreko

Ez dira guziak, guziari sor kompona egiten diotenetakoak. Eta ezin leikezan guzia uzteko dutenetakoak ere. Eta... euskeraz idazten dana, euskaldunak izan arren, irakurri gabe uzteko dutenetakoak, eta ondorez dabilgunaren jakitun egiten endiranetako oietakoak. Bai dira adi-adi aberri-aldez beti ernai daudelarik, ezer egin leikela nabaitzen dutenean, e k i t e k o gertu daudenak ere.

Orrela gure ARGIA maite ontan alegia, emakumak antola dezakegun «Kistar-ikasbide eguna» alpa nianetik, asmoa ontzat artuta zerbait egiteko gertu daudenak ager zaizkigu.

Urretxu'tik, «Emakume bat», Elgoibar'tik, «Mirentxu», Motriku'tik, gertu daudela gaztigatu didate. Geiago ere izango dira Jaungoikoa lagun. Orixe bai. Bera lagun artzen ba'degu, egiñik ez da. Ekin ba, ta aurrera.

Buru egingo duan batzorde baten agindua, guziok beartzen gaituztela, ta nork zuzendua gendukela, elkarren irakatsiz eta elkarren leian, geiago egin al izango litzake; baño ori ez danean, al dan bezela. Batzuk bederik asi gaitean eta gauzak asitzea bear-bearreko dutela ikusiko ba-dira. Geroago geiago izango gera, ta geroago obeto jarraituko diogu.

Baña ez gaude astia galtzeko aldian. Urte bat alperrik igarotzen uzteak, asko esan nai du, alde guzietatik arerio amorratuak umetxuen biotzetatik uskurtu eta euskera kendu nai diguten garai abetan, eta aurten bertan ¡ekin! urrengorako utzi gabe.

Aurtengo garizuman ba, bereziki alegindu b e a r gera gure erritxoko umetxoai, euskeldun jalo ta euskeldun naj diran umetxo maitoai, kistar ikasbidea, ain aldi laburrean leiken bestean kistar ikasbidea euskeraz irakasten. Ara nola:

Emakume bakoitzak, taldetxo bat gure kontura artu, ta etxean edo batzokian, edo bakoitzari ondoen letorkion tokian, orduan, eta eraz, irakatsi. Umetxoak, naiz eta beren gurasoak ez, euzko-abertzaletasunera galberatuak nabaitzen ditugu, ta erruz urbiltzen dira guganaa dei dagigunean. Au argi ikusten degun gauza da.

Zenbaiteri, ezin lezaioke ikasten ari diran erderazkoa utzi-arazi ta euskeraz ikasten ipiñi; ain aldi laburrean, eta bere guraso edo irakaslien aurka alperrikakoa litzakelako. Orrelakoi baña, azalpena euskeraz egin, erderaz erdi alperrik ikasten ari diran otoitzoak, euskeraz emandako azalpenaz ulertu al izan dezaten. Abek, otoitzak irakatsi, baita euskeraz kistar-ikasbide liburua irakurten ere, eta beraz aituaz gañera, beren etxean irakurten oituko zaizkigu.

Besteai, ikastolan edo elizan euskerazko kistar-ikasbidea ikasten ari diranai, ikastaro orri lagunduaz geiago ta geiago ikasten alegindu arazi, Pazkuetan egingo degun jai ederrerako pozean.

Astean bein, edo noiz erabakitzen dan, taldeak eta irakasleak elkarrengana bildu toki batean, baña-besteak pozt'u ta elkarren berri artzeko; eta guzientzat bearreko edo on diran asmoak artzeko.

Guzi-guziai baña, irakurri arazi, eta gurekin dauden aldi ortan, euskera utsez mintza-arazi. Ez da au lan aundia berroerikaro baten. Emakume geien-geienok, abertzale artean beintzat, geron etxetan lan asko degunok gera, baña aldi luzea ez degu ontarako artzera guazen au, edozeñek ere, alegintzeko, ta ¡ekin!

Jaia nola antolatu ta abar, geroago edo urrengoan esango degu. Eta zuek beste asmorik zereneg ba'dezute, esan, batek baño bik edo iruk, geiago lenaxkele-ta.

TENE

Gazteiz'ko Gotzai jaun agurgarriak Euzko Nekazari Bazkunekoai biali dien onespena.

Gazteiz'ko Gotzai jaun Muxika ta Urrestarazutar Matai jaun guztiz agurgarriak onespen berezi bat biali die Euzko Nekazari Bazkunekoei. ARGIA'k pozez beterik argitaratzen du Euzko Nekazari Bazkunen Alkartasuneko lendakari jaunak au dala-ta artu duan eskutitza, aientzat, euzko nekazarientzat alegia, beren arerio ta etsaiak ematen dizkien garraztasun eta min guzien sendakai ta gozabide onenak onespen eta eskutitz ori diralako. ARGIA'k zorionik biotzkorrenak damazkio Euzko Nekazari Bazkunari beretzat egun pozgarria dan onetan.

Onela dio eskutitzak:

«*Secretaría de Cámara del Obispado de Vitoria.*

1935'eko Otsaillak 13.

Nekazarien Lendakari jauna
Donostia

Agur: pozik jakinarazten dizut Gotzai jaun agurgarriar urteko Batzar Nagusian bilduta iruroge i erietako nekazarien izenean Donosti'tik biali dioten ufutidatz atsegiña artu duala; eta, lan asko dualako ber-berak ezin erantzun dezaizutekela-ta, neri esan dit jende on-on ofen agur goxoa jasotakoan artu duan atsegin bizia zuri agertzeko, bere Gotzai-onespena bialtzen dizutelarik.

Au dala-ta, pozik eskeintzen natzaizu zure serbitzari leial eta apaiz,

Dr. P. Ormazabal'dar Andoni Mirena.»

Gaubekaztegi (relojeri) onena
Bitzitegi (joyeri) onena
Zaii ta larortz onenak
Guzietan merkena
LA JOYITA
Aldamar 12. - DONOSTIA. - Bretxako aldamenean

Txanpon-zaleak

Untza

Iñoiz ez nun uste Aita Santuk zabaldutako Enciclicak euskeratu bearko nitunik. ARGIA-rako euskeratu ez beñepein. Eta ez dakit zergatik ala uste nuan. Itxurazko irudipena ez zan: ARGIA baserritarrentzat; baserritarrak euskaldunak; baserritarrei Enciclicak erakusteko, ¿nun eta nola ARGIA'n baño egokiago?

Zabala'tar Luis jauna, baserri askoren jabea, bere baserriri untza bezela itxasita dago. Ikusiko zenduten milla bider orma zarretan, baserri zarretan, untza nola itotzen dan zañak baztar guzitan itxasiz. Zenbat eta zarragoa ainbat indartsuagoa. Zabala jauna ere ala da: zartzaroan gogortzen.

Argatik, entzuten badu baserria bere jabeari, balioa ordainduaz kendu litekela, ikusgarria da nola asarretzen dan, nolako zalapartak ateratzen ditun. Esan banun esan nun: jaun orren ixtilluk alakoak izan dira! Socialistak gera-la:" Gobierno'ak nagusiari berea kentzea nai degula, eta abar. Ez dakit nik zenbat gauza entzun bearrean arkitu naizen.

Baño Zabala jauna, eta bera bezelakoak, erruz daude, arrazoirik ez daukate eta ixildu egin bear.

¿Zer esan det nik? ¿Zer esaten degu guk, kristau bidea jarraituaz? Guk esaten degu, baserria bertan lana egiten duanantzat bear dala, nagusiari bere balioa ordaindu ondorean. Argi ta garbi.

Norbaitek esango balu ori Jesukristo gure Jaunaren dotriña ez dala, datorrela. ¡Nola esango du bada! Aita Santuk garbiro erakutsi dute. Zenbat eta zenbat gauz esango nituzke «Rerum novarum» eta «Quadragesimo annostik» artuta! Gizonak bi taldetan daudela; batzuk aberatsak, dena dutenak, besteak, beartsuak, ezer ez dutenak. Bitarte izugarri ori moxtu ezin bear dala, eta beartsueri agindu zerbait emango zaiela, itxaropenik galdu ez dezaten. Gizonak, berea dala dakin lurraren gañean lana egitean gogoz egiten du. Al egiña lurraren jabe asko egin bear dira. Aberastasuna beartsuen artean zabaldu egin bear da. Argatik Gobierno'ak geldirik ezin egon litezke, eta zabalketa orri ekin bear diote guztion onerako.

Berriro esango det: Baserria lana egiten duanantzat bear dala, nagusiari bere balioa ordaindu ondorean.

¡Bai, bai! Esaiozute ori Zabala eta Zabala bezelakoari eta ikusiko dezute zaputza. Ori lapurreta omenda, noski.

Aita Santuek nai omen dute beartsuak poliki poliki dirua gordeaz zerbait erostea. Ori ez dago gaizki, baño saldu bear duanari ez zaio ajolik erostunan dirua poliki poliki gordea edo loterin irabazia izatea, ez. Zabala'k badaki baserrik erosteko diña gordetzea zailla dala, eta argatik esaten du ori.

Gizon orrek, orain ez du baserririk saldu nai. Bere maixtarrak dirua poliki poliki gordetzean salduko al lituzke? Ez; joka dezagun garbi. Baserritarrai zor zaiona eman zaiogun.

Berak eta bere zendiak izerdiz bustitako lurrak bestentzat ez dute bear. Nola edo ala dirua sortzen badu dabilzkin lurrak ordaintzeko, lurrak beretzat. Eta ori, oraingo jabeak nai ez badute, azkenean Gobierno'ak aginduta egin bearrean izango dira, matxinada batean lapurtzen ez badizkate.

Gauza negargarria da aberatsan gosea. Ez da beste antzeko goserik. Ezin ase. Orrenbeste negar baztar guzitan, orrenbeste naigabe, eta aberatsa Jesukristoren dotriñarik ez balitz bezela.

Eta uste dute zerura bidean daz dela. Datorren igandean esango dizuet nola.

JON ANDONI

Asterik aste

bertsotan

ASTERIK ASTE

Zuk asteoro letzen ba'zendun
nere bertsoen atala
kezkaturikan egongo ziñan
ikusirik palta zala.
Esango dizut berealaxen
nik kulparik ez detala,
beste bertsoan ikusi zazu
zergatik gerta dan ala.

* * *

Bertsolarien eguna zan da
an nitzan pozik agertu,
danen artean fin jarri eta
bertso botatzeko gertu;
nere aldia eldu zanean
arkitu nitzan ain estu
nun gerozkikan gaur arteraño
gelditu naizen ni mutu.

* * *

Ni bertsolari txarra naizela
igarri nun alegia;
baña bertsotan, naiz txarrak izan
esaten ba'det egia.
Jauntxokeriak astindu eta
zapaldus gaiztakeria,
onekin ondo goralduko det
maite detan Aberria.

* * *

Au sinistuta emen nator ba
txarrak zigortuz ederki,
oraingo onetan ba-dirudit nik
gutxienez bateterdi.
Arropuztuta jarria nago
amaikatxo bat bider ni;
agindu, jaunak: orretarako
emen dezute

LIERNI

Mutriku'ko Eusko Langilleak

Dei egiten zaye Elkarte onetako bazkide guziai datorren igandean (eguna 24) goizeko amaiketan «Emakume Abertzale Batza'n» aretoan (J. L.) egingo dan batzar orokorrera.

IDAZKARIA

Salazar, Portugal'ko agintaria

Gaur egunean, Europa'ko nazio artean indar agintaritza asmitz ikusten dira. Indar agintaritzak, erderaz dictadura deritzaoak dira. Italia'n dala, Alemani'n ere berdin. Polonia, Errusi'n, Austria eta berdin beste zenbait tokitan ere.

Orrela gertatzen da Portugal'en ere. Gizon baten menpean dira: Oliveira Salazar, Coimbra'ko irakasle jakintsuaren menpean.

Ainbeste eta ainbeste idazten da Alemani edo Itali'ko agintarietzaz. ¡Alegia, diote, etorkizuneko bidrak irikitzen ari dirala leku oietako agintariak. Adiskide asko dituzte beste toki askotan ere, eta bere nazioak, moda orretara nai lukeitenak, asko dira gure artean ere. Batez ere Hitler Alemani'ko eta Mussolini Itali'koak, adiskideak ugari dituzte zenbait lekutan.

Baño ez dirudi Portugal'eko Salazar onek, kanpo aldean orrelako laguntzarik arkitzen dunik.

¿Zergatik ote auze? Au, Salazar alegia, indar agintaria degu ba, alek bear laxe!

Salazar'ek Portugal nazioa katolikotasun bidetatik eraman nai duelako ez ote da ori?

Alek, gauza askotan beren nazioak altza ba dituzte, auze egiztatu egin bear da, nai ta ez. Salazar onek ere Portugal goratu du.

Bai; ori egia da. Baño Portugal'eko S a l a z a r agintariak katolikotasunak agintzen duan eran, gizonari —pertsonari— begiramen aundia dio. Eta begiramen au aurrerako ere agiada da.

Orrela dio Salazar'ek bere agintzak Itali eta Alemani'koakin neurritzen ditzanean. «Gure legeak, —dio— ez dira aiek bezin gogorrak, gure oiturak ez aiek bezin zorrotz eta itunak, eta azkenik Estaduak, gure Estaduak, gizonak ez ditu menperatzen aiek aña.»

Merezi du, Salazar onek, bere sotteari begira jendea jartzea...

ARTETXE'tar Joseba